



Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

## **ASTIGARRAGAKO NABARRA-OÑATZ 11 ZENBAKIAN DAGOEN UDAL LOKALAREN ERABILERAREN EMAKIDA-ADMINISTRATIBOA EMATEKO OINARRIAK**

### **1.- OINARRIEN XEDEA**

Oinarrien xedea da Nabarra-Oñatz 11.zenbakiko udal-lokalean dagoen Euskararen Etxearen erabilera pribatiboko emakidaren baldintzak arautzea.

### **2.- IZAERA JURIDIKOA**

Emakida ondare-negozio juridiko pribatua da, eta horren bidez jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatiborako baimentzen da. Oinarri hauek arautuko dute emakida, eta bertan aurreikusten ez diren gaietan lege hauek aplikatuko dira:

- Toki Araubideari buruzko legerian ondasun publikoen aprobetxamenduari buruz ezarritako berriazko arauak, zehazki: 1) 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 2) 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onartzen duena; eta 3) Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, aplikagarria zaion guztian.
- Toki-araubidearen eta sektore publikoko kontratuen alorrean indarrean dauden legezko eta arauzko xedapenetako kontratazio arauak; bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea ere; ordezkotako izaera dutenez, osagarritzat hartuko direnak.
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.
- Zuzenbide pribatuko arauak, ordezkotako zuzenbide gisa aplikatzekoak.

### **3.- LOKALAREN EZAUGARRIAK ETA JARDUERAK**

Emakidan uzten den lokala Nabarra-Oñatz 11n kokatzen da, eta ezaugarri hauek ditu: komuna, bulegoa, gela eta ikasgelak (5), aretoa eta sukaldea. Guztira azalera erabilgarria 304,42 m<sup>2</sup> (ikus Euskararen Etxea proiektuko memoriaren VII. eranskineko planoak).

Emakida ematen da bertan euskararen biziberritzearen bueltako ekosistema osoaren erreferentziazko gune izatera datorren Astigarragako Euskararen Etxearen proiektua



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

garatzeko (emakidunak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak partekatuko dute kudeaketa). Horren helburu, definizio eta jarduera ildoak honakoak dira:

Helburu nagusia da hizkuntza-ekinbide integral eta berritzaileak sustatzea eta euskaltzaletasuna indartzea, euskararen erabateko garabidea edota normalizazioa lortzeko.

Horretarako, funtzio hauen sustapena izango du muin:

•**BAT EGIN!** Herritar guztiei irekia, euskaldun guztiak bat egin eta elkartuko dituen etxea izango bada, lagun beza euskaldunen, euskara ikasleen nahiz herrira etorri berri direnen arteko **harremanak ehuntzen**.

•**EKIN eta ERAGIN!** Proiektuak garatu eta ekimenak landu. Asmoei bide eman eta sortu. Kontzientziak eta dinamika berriak piztu, euskal iruditegia elikatu. Eragileen partaidetzatik, elkar-ekin, eta eragin. Egingo al da elkartetik interakziora eta elkarrekintzara **jauzi!**

•**HEDATU!** Sorkuntzatik garapenera, eragin eremua zabaltzea ere izango da betekizun. Alegia, piztutako eta aktibatutako hori guztia herrira barreiatu asmoz aritzea; herri kohesioaren alde, herri osorat herri- identitate berri bat **blaituz**.

Laburbilduz, **jarduera ildo** hauek izango ditu Astigarragako Euskararen Etxeak:

a)Kontzientzia euskaltzalea piztea, elikatzea, sendotzea eta sustatzea Astigarragan. Euskaltzaletasuna indartzea eta euskara sustatzearen aldeko jarrera zabaltzea.

b)Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea sustatzea. Herritarren hizkuntza gaitasuna hobetzea eta Astigarragan euskal hiztun berriak lortzea. Euskararen ezagutza unibertsalizatzea eta berreuskalduntzea.

c)Euskararen aldeko diskurtsoetik diskurtso egokituetera jauzi egitea: euskara urrun sentitzen dutenengana iristeko diskurtso berrituak eraikitzea eta hedatzea.

d)Hiztunak aktibatzea; euskaldunen sentsibilizaziotik ahalduntzera, hiztun komunitate trinkoa helburu.

e)Herrian zehar euskararentzako arnagune izango diren eremu soziofuntzional berriak irabaztea.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

f) Herritarrengan euskararekiko motibazioa eta atxikimendua indartzea: aldeko jarrerak zabaltzeko, hizkuntza ohituretan eragiteko eta erabilera nahiz transmisioan nabari diren ahultzeei erantzuteko.

g) Euskaldunak ahalduntzea, euskara indarberritzea eta euskararen garabide osoa erdiestea.

### 4.- EMAKIDAREN EPEA ETA IRAUPENA

Emakida 15 urterako ematen da, hitzarmena formalizatzen denetik kontatzen hasita.

Emakidaren epea igaro ondoren, Udalak proiektu bererako emakida berri bat ematea erabaki ahal izango du. Horretarako, ez da beharrezkoa izango proiektu berri bat idaztea, eta emakidak onartutako proiektuaren arabera eman ahal izango ditu. Proiektu hori aplikatuko da bere osotasunean edo baldintza-agiria aldatuta.

Emakidaren eta emakiden epea igaro ondoren, jabari publikoaren erabilera pribatiboa etengo da, eta instalazioa udalaren jabetzara itzuliko da.

Emakida azkentzen denean, arrazoia edozein dela ere, emakidadunak Udalari entregatu beharko dizkio instalazioak, hurrengo 15 egunen barruan, kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian.

### 5.- EMAKIDAREN KANONA ETA BERMEA

Garatuko den jarduera interes publikotzat hartu denez, eta emakidunak udalarekin lankidetzan jardungo duenez Euskaren Etxearen proiektuan, ez da inolako kanonik ezartzen udal-higiezina erabiltzeagatik.

Alabaina, 5.683,46 euroko bermea (ondasunaren tasazio-balioaren %1a) aurkezteko betebeharra ezartzen da, emakidadunaren jarrera arduragabearen ondorioz edota modu egokian erabili ez izanagatik lokalak jasan ditzakeen kalteei eta emakidadunak hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteei aurre egiteko. Bermea administrazio-emakidaren esleipena jakinarazi eta hurrengo 15 eguneko epean eratu beharko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 108. artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 6.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Emakidadunak eskubidea izango du instalazioak lehentasunez erabiltzeko; hala ere, Udalak Euskararen Etxearen helburuarekin zerikusia duten jardueretarako erabili ahal izango du. Gainera, salbuespen gisa, Udalak beste erabilera batzuetarako ere baimena eman dezake inoiz.

Bestalde, emakidadunak betebeharrak hauek izango ditu:

- Astigarragako Udalarekin lankidetzan jardutea Euskararen Etxea izeneko proiektuaren kudeaketan.
- Programaren jarraipena eta kontrola eramatea, eta urtero horren inguruko txostena aurkeztea udalean.
- Emakidaren xedea eta bertan ezarritako mugak errespetatzea. Emakidadunak "Euskararen Etxea" izeneko proiektuan zehaztutako jarduerak egin ahal izango ditu. Jarduera horietaz gain besteren bat egin nahi badu, aurrez baimena eskatu beharko dio udalari, eta horrek proiektuaren helburu nagusiarekin – euskararen normalizazioa lortzea Astigarragan – zerikusia izanez gero, baimentzeko aukera izango du.
- Espazioaren kudeaketaz arduratzea: beste eragileen gela erabileraren eskaerak izapidetzea, ateak ireki eta ixten direla arduratzea, alarma jarri eta kentzeaz arduratzea, instalazioei eta erabiltzaileei eragiten dien edozein gorabehara udalari jakinaraztea, ...
- Udalak programaren kudeaketa eta garapen egokirako egiten dion edozein eskakizun betetzea.
- Emakidunak utzitako lokala modu egokian erabiliko du eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada Udalari lehenbailehen jakinaraziko dio.
- Gutxienez 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatuko du bere jardun publikoaren ondoriozko kalte material zein pertsonalei neurri egokian erantzun ahal izateko.
- Estatuko, probintziako edo udaletako zergetan edo tasetan alta eman beharko du, eta urtero egiaztatu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela urtero egiaztatuko du.
- Jarduera garatzen duen bitartean, aplikatzekoa den araudia bete beharko du, eta, bereziki, hots kutsaduraren aurka babesteko udal ordenantza.
- Goizean instalazioak irekitzeko eta gauean ixteko udalak ezarritako ordutegia betetzea.
- Emakidadunak ordainduko ditu bere jarduerari dagozkion gastuak, udalak horretarako onartzen duen urteko dirulaguntzari kalterik egin gabe.
- Erabiltzaileak sortu dezakeen edozein hondakin sailkatu eta dagokion edukiontzian bota beharko du; elkarteak hori behar bezala betetzen dela zaindu beharko du, eta hondakinak dagozkien edukiontzietan utzi beharko ditu.
- Debekatuta dago lokalean animaliak sartzea, txakur itsu-gidariak eta laguntza txakurrak izan ezik.
- Ezingo da publizitaterik jarri, aurrez udalaren baimena eduki gabe.
- Emakida laga edo eskualdatu ahal izango da, bakarrik udalaren alde aurreko baimena edukita.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

•Emakida arautuko duten oinarrien mende egongo da, eta horiek bete beharko ditu, eta bertan jasota ez dagonentzat, bete beharko ditu Ondasunen Araudiko eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legeko aginduak ere.

### 7.- UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Udalak, interes orokorreko arrazoiak direla medio, emakidaren baldintzak aldatu ahal izango ditu, betiere funtsezko baldintzei eragiten ez badie.

Era berean, Udalak beretzat gordetzen du emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak aldatzeko eskubidea, interes orokorra dela eta; edota lokala erabiltzeko irizpideak aldatzekoa ere.

Emakidadunak ez du eskubiderik izango aldaketa horiengatik kalte-ordainik jasotzeko.

Bestalde, Udalak honako betebehar hauek ditu:

•Emakidaduna emandako erabileran mantentzea, eta kalte-ordaina ematea, hala dagokionean.

•Funtzionamenduari lotutako gastuak (garbiketa, argia, gasa, telefonoa...), zaharberritzeari dagozkionak (margotzea, konponketak,...), obrak eta lokalaren eta bere edukiaren gaineko aseguruia Udalak bere gain hartzea. Halaber, horien gaineko erabaki guztiak ere bereak dira.

•Udalak emakidadunaren esku utziko dituen hornigai eta gauzen inbentarioa egin eta eguneratzea. Inbentario horretan zehaztuko da alde bakoitzaren jabetzakoa zein den, eta egingo da emakida sinatu eta gehienez ere lau (4) hilabeteko epean.

•Udalak elkarteak antolatzen dituen jardueretan lagunduko du urteko dirulaguntza izendun bat emanez, indarrean dagoen Udal Dirulaguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoaren arabera.

Dirulaguntza hori udal-organo eskudunak (*alkateak edo tokiko gobernu-batzarrak*) onartuko du urtero, garatu beharreko jardueri buruzko memoria eta aurrekontua aurkeztu ondoren, eta udalaren eta elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzera baldintzatuta egongo da. Hitzarmen horrek laguntzaren baldintzak arautuko ditu, baita instalazioaren erabilera ordutegia edota proiektuaren kudeaketarekin zerikusia eduki eta oinarri hauetan aratu gabeko alderdiak ere.

Diru-laguntzen udal-ordenantzan araututako moduan eta epeetan ordainduko da laguntza.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 8.- EMAKIDADUNAREN ETA HIRUGARRENEEN ARTEKO HARREMANAK

Emakida hori emandakotzat joko da, jabetza-eskubidea salbu eta hirugarrenei kalterik egin gabe.

### 9.- ITZULKETA

Emakidaren epea amaitzean, instalazioa udalaren jabetzara itzuliko da. Lokalak kontserbazio-egoera onean egon beharko du; horretarako, eta emakida-epea amaitu baino gutxienez 3 hilabete lehenago, Udalak –instalazioa eta inbentarioko ondasunak– zer egoeratan dagoen ikuskatzeko teknikariak izendatuko ditu.

Emaitzak ikusita, eta emakidadunak behar ez bezala eta/edo zabarkeriaz erabiltzearen ondorioz kalteak eragin dituela antzematen bada, aurreikusitako baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat jotzen diren obrak eta konponketa- eta birjarpen-lanak egiteko aginduko da. Kasu horretan, emakidadunaren kontura izango dira egin beharreko konponketa- edo birjarpen-obrak eta -lanak.

Bestalde, emakidaduna behartuta egongo da erabili beharreko ondasunak utzi eta Administrazioaren esku uztera, eta hark jaurtiketa erabaki eta gauzatzeko duen ahala edo ahalmena aitortzen dio.

### 10.- ERRESKATEA

Udalbatzak emakida baliorik gabe uzteko eskubidea beretzat gordetzen du mugaeguna baino lehen, betiere gerora sortutako inguruabarrek interes publikoa justifikatzen badute. Kasu horretan, emakidadunak eragindako kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea eduki dezake.

### 11.- AZKENTZEKO ARRAZOIAK

Emakida honako arrazoi hauengatik azkenduko da:

- A) Emakidaren epea amaitzeagatik; alegia, emakida iraungitzeagatik.
- B) Elkartearen nortasun juridikoa galtzeagatik, bai eta 9 hilabete baino gehiagoz jarduerarik gabe egoteagatik ere, ez bada aurrez udalaren baimena dutela.
- C) Aldez aurreko udal baimenik gabe, emakidadunaren nortasun juridikoa bat-egite, edo zatitze bidez eskualdatu edo aldatzen denean.
- D) Emakida erreskatatzeagatik.
- E) Bi alderdien adostasunagatik.
- F) Lokalaren kalifikazio juridikoa aldatzeagatik, dagokion administrazio-espeditentea izapidetu ondoren. Espediente horri dagokion justifikazio-memoria erantsiko zaio,



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

ondasunaren jabari publikoaren izaera kentzea komeni den edo beharrezkoa den eta galera horrek emakidan dituen baldintzak eta ondorioak justifikatzeko. Kasu horretan, likidazioa egingo da, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 102. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### 12.- ARAU-HAUSTEAK

Arau-haustetzat hartuko da emakidadunaren ekintza edo ez-egite oro, baldin eta oinarri hauetan eta aplikazio orokorreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak urratzea badakar.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, inguruabarrak eta eragiten den kaltea kontuan hartuta.

1.- Arau-hauste arintzat honako hauek hartuko dira:

- Emakidadunaren betebeharrak ez betetzea, baldin eta ez-betetze hori larritzat edo oso larritzat tipifikatuta ez badago.
- Lokala edo ingurua txukun eta garbi ez edukitzea.
- Emakidatik kanpo dagoen jabari publikoko eremuan produktuak, ontziak edo hondakinak biltegitratzea edo pilatzea.
- Goizean instalazioak irekitzeko eta gauean ixteko udalak ezarritako ordutegia ez betetzea, ordubete baino gutxiagoan.
- Hots kutsaduraren aurka babesteko udal-ordenantzan arau-hauste arin gisa tipifikatutako zaratak egitea.
- Udalari ez ematea programari buruz eskatzen den dokumentazioa.
- Instalazioak eta elementuak, higigarriak edo higiezinak izan, modu arin eta nabarmenean hondatzea. Horretarako, narriadura arintzat jotzen dira 1.000 eurotik beherako balioa duten kalteak.

2.- Arau-hauste larritzat joko dira oinarri hauetako edozein artikulutan halakotzat jotzen direnak, eta, bereziki, honako hauek:

- Udalak programari atxikitzen duen/dituen langileei, udaleko euskara saileko langileei edota euskara sustatzeko beste eragileei ez laguntzea, edota beren jardunean oztopoak jartzea.
- Udalaren aginduak ez betetzea.
- Altzarietan eta lokalean publizitatea jartzea, horretarako udal baimena eduki gabe.
- Goizean instalazioak irekitzeko eta gauean ixteko udalak ezarritako ordutegia ez betetzea, ordu erdi baino gehiago eta ordubete baino gutxiagoan.
- Instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz bizilagunei eragozpen egiaztatuak sortzea.
- Hots kutsaduraren aurka babesteko udal-ordenantzan arau-hauste larri gisa tipifikatutako zaratak egitea.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

- Instalazioak eta elementuak, higigarriak edo higiezinak izan, modu larri eta nabarmenean hondatzea. Horretarako, narriadura larritzat jotzen dira 1.001 eta 10.000 euro bitarteko balioa duten kalteak.
- Urtebeteko epean hutsegite arin bera behin eta berriz egitea, bai eta bi urteko epean edozein hiru hutsegite arin egitea ere.

3.- Arau-hauste oso-larritzat joko dira oinarri hauetako edozein artikulutan halakotzat jotzen direnak, eta, bereziki, honako hauek:

- Lokala erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona eta/edo erakunde batzuei hori eragozteak.
- Ikuskatzaileen eta agintarien errekerimenduei jaramonik ez egitea.
- Hots kutsaduraren aurka babesteko udal-ordenantzan arau-hauste oso-larri gisa tipifikatutako zaratak egitea.
- Goizean instalazioak irekitzeko eta gauean ixteko udalak ezarritako ordutegia ez betetzea, ordubete baino gehiagoan.
- Instalazioak eta elementuak, higigarriak edo higiezinak izan, modu oso larri eta nabarmenean hondatzea. Horretarako, narriadura oso larritzat jotzen dira 10.001 eurotik gorako balioa duten kalteak.
- Instalazioa baimendu ez den beste erabilera baterako erabiltzea, udalaren alde aurreko baimenik gabe.
- Okupatutako jabari publikoaren kontserbazioa behar den arretaz ez betetzea.
- Emakida subrogatzea, errentan ematea, azpierrean ematea edo lagatzea, osorik edo zati batean.
- Urtebeteko epean hutsegite larri bera behin eta berriz egitea, bai eta bi urteko epean edozein hiru hutsegite larri egitea ere.

Arau-hauste oso larriak hiru urte igarota preskribituko dira, larriak bi urte igarota eta arinak sei hilabete igarota.

### **13.- ISUNAK, LEHENERATZEKO BETEBEHARRA ETA BETEARAZTE SUBSIDIARIOA**

Arau-hauste arinak 750 eurora arteko isunarekin edo/eta ohartarazpenarekin zehatuko dira; larriak, 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isunarekin; eta oso larriak 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin eta/edo emakida iraungitzea eta bukatutzat ematearekin. Gainera, egindako arau-hausteak norbait bidegabeki aberastea baldin badakar, arau-hausleak, urraketa larritasunaren arabera isunaz gain, lapurtutakoaren zenbatekoa ordaindu beharko du.

Ezarri beharreko zehapenak edo zigorrak mailakatzeko, arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunarekiko behar bezalako egokitasuna eta proportzionaltasuna gorde beharko dira. Halaber, kontuan hartu beharko dira, batetik, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako inguruabar aringarri eta astungarriak eta, bestetik, Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

16ko 1/2023 Legean xedatutakoak (edo xedapen horiek aldatzen dituzten araudiek ezarritakoak).

Zehapen ekonomikoa ordaintzeko ezarritako epea igaro eta emakidadunak ez badu ordaindu, udalak premiamendu-bidean kobratuko du, dagokion errekarguarekin.

Zehapen guztiak dagokion espediente izapidetu ondoren ezarriko dira. Espediente horretan, ebazpena eman aurretik, 10 eta 15 egun balioduneko epeko entzunaldia emango da (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak entzunaldi-izapideetarako epe luzeagoa ezartzen duenean izan ezik; kasu horretan, azken epe hori aplikatuko baita).

Espediente hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 63., 64., 85., 89. eta 90. artikuluetan araututako prozeduraren arabera izapidetu beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 25.etik 31.era bitarteko artikuluetan araututako printzipioak errespetatuz, betiere xedapen horiek aldatzen dituzten arau berriagoetan ezarritakoaren arabera.

Arau-hausteak instalazioetan kalteak eragin baldin baditu, ezartzen den zehapena edo zigorra alde batera utzita edo horiek kontuan hartu gabe, arau-hausleak eragindako kalteak konpondu egin beharko ditu eta instalazioak arau-haustearen aurreko egoerara itzuli.

Arau-hausleak ez badu egoera lehengoratzen, aurreko zenbakian ezarritakoari jarraikiz, Udalak gauzak kaltea eragin aurreko egoerara lehengoratzeko lanak egin ahal izango ditu, modu subsidiarioan, arau-hauslearen kontura, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan. Dena den, zehatzeko ahalmena preskribatuta egon arren, Astigarragako Udalak gauzak lehen zeuden moduan uzteko eskatu ahal izando die erantzuleei, igarotako denbora edozein izanik ere.

### 14.- UDALAREN PRERROGATIBAK

Toki-erakundeek beren ondasunekiko dituzten prerrogatiba edo ahalmen orokorrez gain (*Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 44. artikulua eta hurrengoak, 33/2003 Legearen 41. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 82. artikulua*), Astigarragako Udalak – alkatearen bitartez – ahalmena du administrazio-emakidaren indarraldian sortzen diren arazo guztiak ebazteko, gai hauei buruz: emakida interpretatzea, hura betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arazoiengatik aldatzea, ondorioak eta azkentzea, betiere indarreko legerian ezarritako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizunei lotuta.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza  
idazkaritza@astigarraga.eus

Era berean, alkatetzak du administrazio-emakidaren onuradunek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena, eta, euskara eta hezkuntza teknikariaren edo horretarako izendatzen duen pertsona fisiko zein juridikoaren bitartez, edozein unetan lokala ikuskatu eta gainbegiratu ahal izango du, baita horien erabilera egokia eta emakidaren xedearekin lotutako jarduera eta dokumentazioa ere, eta dagozkion zuzenketak eta zehapenak ezarri ahal izango dizkio emakidaren onuradunari.

### 15.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazio-emakidaren interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortutako auziak alkatetzak ebatziko ditu. Alkatetzaren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta berehala betearaztekoak izango dira. Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera), edo errekurtsoa jarri ahal izango da jurisdikzio eskudunaren aurrean.

Emakidaren ondoriozko prozedura judizialak, betiere, udal-ondasuna kokatuta dagoen lekuan jurisdikzioa duten auzitegi eskudunen mende daudela ulertuko da.